



**JAKIUNDE**  
ZIENTZIA, ARTE ETA LETREN AKADEMIA

---

# Politika zientifikoari buruzko Jakiunderen adierazpena

---

2013-11-15

## ***POLITIKA ZIENTIFIKOARI BURUZKO JAKIUNDEREN ADIERAZPENA***

Jakiundek atseginez ikusten ditu erakundeek, zeinek bere eskumenen barruan, zientzia- eta teknologia-politikak ezartzeko abiarazten dituzten ekimenak, bai-eta ekimen horiek koordinatzeko ahaleginak ere.

Zientzia-ezagutzaren (zientziak, arteak eta letrak) eta teknologiaren zeinahi esparrutan, zientziari buruzko politika publikoek helburu goranahiak markatu behar dituzte eta helburu horiek lortzeko bitarteko egokiak zuzkitu. Gobernu-ekintzak, bestalde, politika horiek egikaritzera bideratutako inbertsioen iraunkortasuna segurtatu behar du.

Egun bizi dugun ekonomia-krisia dela eta, inbertsio publikoak murrizteko gero eta presio handiagoa jasaten dugun honetan, zientzia-politika ausarta, zorrotza eta iraunkorra behar dugu. Lagungarri izango da hori gizarteak zientziei, teknologiari, arteei eta letrei buruz maila handiko ulermena eta estimazioa izan ditzan eta egungo munduaren eskakizunekin bat datozen garapena eta sendotze sozial eta ekonomikoa lor ditzan; era berean, lehiakortasun eta garapen handiko ekonomia finkatzea ahalbidetuko du.

Jakiunderen iritzian funtsezkoa da herritarren artean zientziari eta teknologiari buruzko jarrera gizabidezkoa eta arduratsua sorraraztea, bi alor horiek gizarte-balio kalkulazineko ondasun kulturala baitira, giza balio iraunkorrak biltzen dituzten eta, hortaz, ondare publiko garrantzizkoa eratzten duten neurrian. Beraz, zientziaren ikerketan eta garapenean egindako inbertsio publikoa ez da ez laguntza bat, ez luxu bat, ezinbesteko baldintza baizik gizartearen garapenerako, oro har, eta balio erantsi handiko produktuak fabrikatzeko eta merkaturatzeko, bereziki.

Testuinguru horretan, Jakiundek argi eta garbi adierazi nahi ditu zientzia-politika orotan ezinbestekoak diren ondorengo alderdiak:

1. Orain arte bezala, «Herriaren helburu» gisa hartu behar da eta, hortaz, gai horietan eskumenak dituzten Herriko erakunde guztiak nahastu behar dira berorren diseinuan, plangintzan, ebaluazioan eta egikaritzan.
2. Elkarrekotasuna egon behar du helburuen eta helburuak erdiesteko jartzen diren bitartekoen artean.
3. Oreatua eta malgua izan behar du, ikerketaren alderdi guztiei erantzun beharko baitie: ikertzaileak, azpiegiturak, teknikariak eta administrazioa.
4. Programa bereziak eduki behar ditu ikertzaile gazteentzat.
5. Finantzaketa jarraitu eta iraungarria konbinatu behar du berariazko lege-neurriekin eta ikerketarako tratamendu administratibo sinplifikatuarekin.
6. Gizarteari ezagutza eta/edo berrikuntza transferitzeko ahalmena duten eremuak identifikatu behar ditu.
7. Ebaluazio-prozesu pluralekin, gizarte-komunikazio ekintzekin eta zientziei, arteei, letrei, teknologiari eta berrikuntzari buruzko gizarte-pertzepzioa monitorizatzeko ekintzekin osatu behar da.

## **Herriaren helburua**

Gizarteak zientzia eta teknologia behar ditu; zientziak eta teknologiak gizartea behar dute. Bi norabidetako harremana da. Alde batetik, gure gizartearen garapen sozialaren etorkizuna mundu mailan lehiakorrek izan behar duten zientzia eta teknologietan oinarrituta dago, eta bestetik, zientziaren eta teknologiaren garapena gizarteak haiek finantzatzera zuzendutako ekintza erabaki eta jarraituaren mende dago. Horregatik, Herriakordio bat behar da.

Ikerketa-programek, diseinu ona eta finantzaketa egokia ez ezik, politika-jardueraren denbora epeekin beti bat etortzen ez diren denbora-iraupenak behar izaten dituzte. Horregatik, programa horiek «noizbehinkakoak» bihur ez daitezten (hori gertatzen da ahalegin jarraituaren premia aurreikusten ez denean), beharrezkoa da ikerketa-programen finantzaketari epe ertain eta/edo luzean eustea. Horrek ahalbidetuko du Herrian zientzia-produktibitate homologatu handia egotea eta, aldi berean, sortutako ezagutza gizarteari, oro har, eta ekoizpen-sistemari bereziki, transferitzeko prozesu zail eta motela erraztuko du. Ekimen horretan, esandako arloetan eskumenak dituzten Herriko erakunde eta organo guztiak nahastu behar dira.

## **Helburuen eta bitartekoen arteko elkarrekikotasuna**

Erdietsi nahi diren helburuak zehaztea da, beharbada, zientzia eta teknologiako politiken plangintzako punturik delikatuena. Helburu goranahiak ezarri behar dira, zalantzarik gabe. Era berean, ordea, lortzeko modukoak izan behar dute, eta, batez ere, nabarmenak zientziaren ikuspuntutik. Horregatik da hain garrantzitsua ebaluazioa, ez bakarrik emaitzena, baita helburuena ere. Halaber, zientzia- eta teknologia-politikek bideratu beharko dituzte ezarritako helburuak erdiesteko beharrezkoak diren bitartekoak, bai pertsoneri dagokienez (ikertzaileak, teknikariak edo laguntzaileak), eta bai azpiegitura zientifikoaren alorrean.

## **Orekatua eta malgua**

Zientzia-politikak existitzen diren bikaintasun mailako pertsona eta taldeei erantzun behar die, zeinahi eremutan lan egiten dutela ere. Era berean, kalitate homologatua eta nazioartean ikusgarritasun kontrastatua duten haiek sostengatu behar ditu. Gainera, aukerak eman behar dizkie sistemara gehitu nahi dutenei, eta ikertzaileen «klase ertain» bat eratzea ahalbidetu behar du, hau da, ikertzaile gisa aitortua izateko sistemak eskatzen duen maila «ertaina» dutenek osatuko luketena.

Kategoria horietako bakoitzak berariazko tratamendu administratiboa eskatzen du, zeinak oraingoa baino askoz sinpleagoa izan behar bailuke, kasu guztietan.

Azkenik, ikertzaileek beharrezkoak dituzten azpiegitura zientifikoak izatea ziurtatu behar du zientzia-politikak, eta ikerketa-teknikarien karrerarako oinarriak ere ezarri beharko ditu.

## **Programa bereziak ikertzaile gazteentzat**

Ikertzaile gazteak sistemara gehitzea ezinbestekoa da ikertzaileen arteko adinaren araberako mailakatzeari eusteko eta, era horretan, sistemaren iraunkortasuna ziurtatzeko. Gainera, ezarrita dauden ikerketako ohitura eta moldeetara haize berria ekartzeko balio behar dute, hala, ikerketa-modu horien bilakaera posible izan dadin eta joera berrietara egokitu daitezten. Ikertzaile gazteak kontu eta arreta handiz gehitu behar dira sistemara, baina behin gehitu direnean, jarraitasuna eman behar zaie finantzaketan, konfiantzan eta haien ahaleginaren onarpen eta estimazioan. Jakina, neurri egokiak hartu beharko dira ikertzaile gazteak jada

finkatuta dauden lankideen zerbitzari soil izan ez daitezen, eta beraz, askatasuna izan dezaten, beren proiektuak garatzeko, bai independente gisa, edota beste talde batzuekin lankidetzan edo koordinatuta.

### **Finantzaketa jarraitua eta iraungarria**

Ikerketa taldeak ez dira inprobisatzen; urte askotako lan gogorra eskatzen du berorien sorrerak. Aldiz, azkartasun ikaragarriaz desegin daitezke ikerketa taldeak; eta behin deseginez gero, ez dute atzerakorik. Horregatik, ikerketa taldeen finantzaketa denboran mantendu beharreko zerbait da, hori bai, dagozkion ebaluazioen pean egon beharko du, eta finantzaketak iraungarria izan behar du, alegia, errealitate ekonomikoari dagokiona. Halaber, ikerketa taldeek sistemaren iraungarritasunari lagundu behar diote; alegia, kanpoko funtsak lortzen saiatu behar dute, ahal duten neurrian.

Horiekin guztiekin batera, gobernuak aintzat hartu beharko lituzke hainbat lege-ekimen sistemari iraungarritasuna emateko, hala nola mezesnasgoaren arautze juridikoa; ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeko neurri fiskal egokiak promulgatzea, edota erakunde publikoek erreserba-funtsak (endowment) izateko aukera.

### **Ezagutza transferitzeko ahalmena duten zientzia-eremuak identifikatzea**

Ikerketa zientifikoan eta teknologikoan egiten den ahalegin publikoaren ordain ekonomikoa eta soziala ekoizpen-sektoreari, erakundeei eta gizarteari oro har egiten zaion ezagutza eta berrikuntza transferentzian gauzatzen da. Beharrezkoa da, hortaz, ezagutzaren eta berrikuntzaren transferentziaren esparruan jarduera sortzeko gai diren zientzia-eremuak identifikatzea.

Jakiunderen iritzian, ahalegin horretan inplikatu behar dira zientzia-komunitatea –bera da ezagutzaren mugez berri duena–, administrazio/gizarte/enpresa sarea –ezagutza horiek gauzatzeaz arduratuko dena–, eta gobernuak, zeinaren egitekoa baita zientzia-komunitatearen eta gainerako gizartearen arteko harremanak eta elkar ulertzea sustatzea.

### **Ebaluazioaren kultura sustatzea**

Jakiundek uste du ikerketa, garapena eta berrikuntza planen ebaluazio pluralaren kultura sustatu behar dela, hainbat mailatan. Hor sartzen dira helburuen ebaluazioa –ez emaitzen soilik–, egindako deialdien ebaluazioa, eta eginkizun horietara eskainitako giza kapitalaren areagotze edo murriztearen neurketa, sisteman betetzen dituzten funtzioekin alderatuta.

Aurreko hori bezain garrantzizkoa da gizartearen jabetza eta kontzientziaztea egindako ahaleginari eta ikerketan inbertitutako baliabideei buruz. Jakiundek irizten dio, zientzien, arteen, letren eta teknologiaren egoerari buruzko programa koherentea, sistematikoa eta egungo gizarte-komunikazioetara egokitua eduki behar genukeela.

*Adierazpen hau 2013ko azaroaren 15ean Bergarako Olaso Dorrean egindako ohiko osoko bilkuran onartu hartu zuen Jakiundek*